

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**125/2021 Foru Agindua, martxoaren 18koa, mendietako koniferen gaixotasun kriptogamiko hostogabetzaileei aurre egiteko jarraibideak ezartzen dituena. Lurretik aplikatuta eta ehuneko 75 [WG] P/P oxido kuprosoekin formulatutako produktu fitosanitarioak erabiltza**

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioiko Nekazaritza Ekoizpenaren Osasunerako Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko otsailaren 19ko Ebazpenaren bidez, salbuespenez baimentzen da ehuneko 75 [WG] P/P oxido kuprosoan oinarrituta formulatutako produktu fitosanitarioak merkaturatzea eta lurretik aplikatzea mendietako konifereri eragiten dien gaixotasun kriptogamiko hostogabetzaileen aurka egiteko, produktu hauen erabilera kontrolatu eta mugaturako ebazpen horretan ezarritako baldintzetan eta epean.

Ebazpenaren oinarri dira 1107/2009 (EB) arautegia, Parlamentu eta Batzordearena, 2009ko urriaren 20koa; 43/2002 Legea, azaroaren 20koa, Landare osasunari buruzkoaren 34. artikuluan manatutakoa eta 971/2014 Errege Dekretuaren, azaroaren 21ekoa, produktu fitosanitarioak ebaluatzeko prozedura arautzen duenaren 7. artikuluan manatutakoa.

Bestalde, 1311/2012 Errege Dekretuak, irailaren 14koa, produktu fitosanitarioen erabilera ja-sangarria lortzeko jarduera esparrua ezartzen duenak, produktu hauen erabileran uren kutsadura eta arriskuak murrizteko neurriak hartu behar direla xedatzen du. Neurri hauek Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioiko Nekazaritza Ekoizpenaren Osasun Zuzendaritzari aurkez-tutako baimen eskaeran aurreikusitako jarduketa planean sartu ziren eta honako Foru Arau honetan transkribatzen dira Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa, xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzen dituena albo batera utziz 2.3. artikuluan oinarrituz.

27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-Elkarte osorako Erakundeen eta bertako Kon-daira Lurraldeetako foruzko ihardutze Erakundeen arteko harremani buruzkoaren 7. b) 1. Atalak ezartzen duen modura, Arabako Lurralde Historikoari dagokio, gainontzeko beste Lurralde Historikoei bezala, landare osasunari eta honen baitan, baso osasunari dagokion legegintza garapena eta jatorria Euskal Autonomi Erkidegoan duten arauen betearazpena.

Diputatu Kontseiluaren 14/2016 Foru dekretua, otsailaren 9koa, Nekazaritza Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duena-ren 14.1. Atalean ezartzen denaren arabera, Mendi Zerbitzu barneko Basogintza Atalei dagokie basoak kudeatzeko eta gaixotasunak eta izurriteak tratatzeko programetarako jardueri buruzko proiektuak eta proposamenak egitea. Era berean, edozein ekintzak derrigorrez bete beharko ditu 43/2002 Legeak, azaroaren 20koa, Landare Os-anunari dagokionak ezarritakotik eratorritako segurtasun balditzak.

Aurreko guztia ikusita, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak oxido kuprosoa gaixotasun kriptogamiko hostogabetzaileen aurka lurretik aplikatzeko emaniko salbuespenezko baimenean oinarrituta eta 52/1992 Foru Arauaren, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubideari buruzkoak 40 eta 98. Artikuluetan ezartzen denez gai hauei dagokien esleitutako eginkizunen erabilera eta 27/1983 Legearen, azaroaren 25ekoa, Autonomia-Elkarte osorako Erakundeen eta bertako Kondaira Lurraldeetako foruzko ihardutze Erakundeen arteko harremani buruzkoaren 7.a.9 eta 7.b.1 artikuluetan xedatutakoari jarraiki, dagozkidan eskumenak erabiliz.

Aginduzko txostenak aztertuta, Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluarenotsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, eta Arabako Foru Aldundiko sailak 2019-2023 legegintzaldirakofinkatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

##### **Lehenengoa. Xedea**

Arabako mendietako koniferei eragiten dien gaixotasun kriptogamiko hostogabetzaileei lurretiko aplikazioen bitartez aurre egiteko ehuneko 75 [WG] P/P oxido kuprosoan oinarrituta formulatutako produktu fitosanitarioak erabiltzeko jarraibideak ezartzea.

##### **Bigarrena. Tratamendua egiteko baldintzak eta kanpoan utzitako azalerak**

Lurretiko tratamendu oro Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak 2021eko otsailaren 19ko egunean emaniko baimenean ezarritako baldintzetara lotu beharko da espresuki, beronen bitartez baimentzen da ezohiko moduan ehuneko 75 [WG] P/P oxido kuprosoan oinarrituta formulatutako produktu fitosanitarioen merkaturatzea eta lurretiko erabilera mendiko koniferen gaixotasun kriptogamiko hostogabetzaileen aurka erabiltzeko. Horrela:

a) Produktu fitosanitarioen eta hauen erabilera baldintzak:

1. Ehuneko 75 [WG] P/P oxido kuprosoan oinarrituta formulatutako produktu fitosanitarioak.
2. Laborea: Mendietako *Pinus radiata* (Intsignis pinua) eta *Pinus nigra* (Iarizio pinua) konifera zuhaiztiak.
3. Erabilera: Xingola marroia eta xingola gorriak eragiten dituzten onddo hostogabetzaileen aurkako tratamendu fungizida.
4. Dosia: ehuneko 0,1-0,2 (1-1,4 kilogramo, Cu inorganiko/hektareako).
5. Erabilera: Urteko lurretiko bi aplikazio baimentzen dira.
6. Segurtasun epea: Ez dagokio.
7. Baimenaren ondorioak: Tratamenduak egiteko aldia 2021eko apirilaren 1etik 2021eko uztailaren 29ra bitarteko izango da.

b) Tratatu daitekeen azalerari dagokionez honako eskusio eremuak edo buffer-ak kendu beharko zaizkio:

Ibai eta errekek.

– 50 metroko eragin eremua Uraren Euskal Agentziak (URA) garatutako geruzako hierarkian 1, 2 eta 3 ordenean sailkatutako emari iraunkorreko ur ibilguetara eta 10 metroko eragin eremua 4 eta 5 ordeneko ur ibilguetara.

– 50 metrokoa eta babes eremua ur-bilketa puntuetatik eta gizaki edota abereen erabilerrako diren iturburuetatik.

Eremu hezeak eta azaleko ur-masak.

50 metroko eragin eremua Arabako eremu hezeetara, erreferentzi bezala Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen inbentarioan dauden urmael guztiak (I, II eta III Taldeak) eta baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina* Bonaparte) aurkitu izanaren ezagutza dagoen urmaelak hartuz.

Babestutako Natura Eremuak.

Babestutako Natura Guneetan ezingo da tratamendurik egin, beraien Babes Eremu Periferikoak ere kontuan hartuz horrela dituztenean.

Kalteberatasun handi eta oso handiko akuiferoak.

50 metroko eragin eremua kalteberatasun handikoak eta oso handikoak bezala sailkatuta dauden akuiferoetatik.

Ekoizpen ekologikoko lurzatiak.

5 metroko eragin eremua ekologikoan lantzen diren ekoizpen lurzati mugetatik.

Hiriguneak eta eraikinak.

Hiriguneetatik eta pertsonak bizi diren eraikinetatik 50 metroko eragin eremua.

Irizpide hauen doikuntza errazteko, eragin eremu hauek jasotzen dituen geruza kartografiko bat landu da eta ehuneko 75etik gorako hostogabetzea duten Pinus radiata espeziearen zuhaitzi azalaren beste bat. Kartografia hau Geoaraba atarian aurki daiteke bai bere deskargarako bai eta bistartzeko hemen:

– Deskarga:

<https://web.araba.eus/eu/geoaraba> (Deskarga gunea).

<https://web.araba.eus/eu/mendiak> (Nekazaritza eta Abeltzaintza-Mendiak, Baso Osasuna).

– Bistartzeko:

<https://web.araba.eus/eu/geoaraba> (Mapen bisorea).

#### **Hirugarrena. Prozedura eta egiaztapenak**

Foru Arau honek aurreikusitako tratamendua egin nahi den lurzati jabeek Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuari jakinarazi beharko dio, I. Eranskinean atxikitzen den orria betez. Dokumentu hau Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko da (Probintzia Plaza, 01001, Gasteiz) edo Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetara.

Nekazaritza Saileko zerbitzu teknikoek jasotako aurretiko jakinarazpenek tratamendua onartzen duten baldintzak betetzen dituztela egiaztatuko dituzte, horrela ez bada lan horiek egiterik ez duela jakinaraziz interesdunari. Era berean, behar adina egiaztatze, informazio osagarri eskaera edota ikuskatze egin ahalko dituzte tratamenduaren aplikazio egokia eta ezartzen diren arauak betetzen direla zihurtatzeko.

#### **Laugarrena. Produktu fitosanitarioen erabilera**

Tratamendu fitosanitarioak 1311/2012 Errege Dekretuak, irailaren 14koa, produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduera esparrua ezartzen duenaren xedapenak jarraituz egin beharko dira ("Ekoizleen eta Operadoreen Erregistro Ofiziala" EOEO baimendutako eta erregistratutako aplikatzaileak).

#### **Bosgarrena. Eranskina**

Foru Arau honi atxikitutako I. Eranskina obestea: ehuneko 75 [WG] P/P Oxido Kuprosoz formulatutako fitosanitarioarekin konifero masetan lurretik tratamendua egin aurreko komunikazioa.

#### **Seigarrena. Indarrean sartzea**

Foru Arau hau ALHAOn argitaratutako ondorengo egunean sartuko da indarrean.

**Zazpigarrena**

Foru Agindu honek bide administratiboa amaitzen du. Honen aurka aurkez daiteke administrazioarekiko auzi errekurtsua Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabete biko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 18a

*Nekazaritzako foru diputatua*  
**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritzako zuzendaria*  
**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Nekazaritza Saila  
Departamento de Agricultura  
Mendi Zerbitzua  
Servicio de Montes

## I.ERANSKINA

%75 [WG] P/P OXIDO KUPROSOZ FORMULATUTAKO  
FITOSANITARIOAREKIN KONIFERO MASETAN  
LURRETIK TRATAMENDUA EGIN AURREKO  
KOMUNIKAZIOA

## ANEXO I.

COMUNICACIÓN PREVIA A LA APLICACIÓN  
TERRESTRE DE TRATAMIENTO FITOSANITARIO  
FORMULADO A BASE DE ÓXIDO CUPROSO 75%  
[WG] P/P EN LAS MASAS DE CONÍFERAS

## Eskatzailearen datuak / Datos del solicitante:

Izen-abizenak Nombre y apellidos			
Helbidea Dirección		N.A.N. N.I.F.	
Herria Localidad		P.K. C.P.	
Telefono mugikorra Teléfono móvil		e-mail	

## Baimendutako aplikatzailearen datuak / Datos del tratamiento:

NORK EGINGO DU / QUIÉN LO REALIZA		TRATAMENDU KOPURUA / NÚMERO TRATAMIENTOS	
• Lursailaren jabeak / El propietario de la parcela	<input type="checkbox"/>	• BAT / UNO	<input type="checkbox"/>
• Tratamendu enpresak / Empresa de tratamiento	<input type="checkbox"/>	• BI / DOS	<input type="checkbox"/>
EOEO ZK. / N° ROPO	TRATAMENDU ENPRESA / EMPRESA DE TRATAMIENTO (tratamendu enpresak egin badu / si lo ha hecho la empresa de tratamiento)		
	IZENA / NOMBRE		I.F.K. / C.I.F.

## Lurzatiaren datuak ■ Datos de las parcelas

Udalerrria Municipio	Poligono zk. Nº polígono	Lurzati zk. Nº parcela	Barrutia Recinto	Azalera Superficie (ha)	Pinudiaren adina Edad del pinar	AURREIKUSITAKO DATA / FECHA PREVISTA	
						1.Tratamendua 1.Tratamiento	2.Tratamendua 2.Tratamiento

Arabako Foru Aldundiaren aurrean AITORTZEN DUT, NIRE ERANTZUKIZUNPEAN, aipatutako tratamenduek 125/2021 Foru Aginduak eta 1311/2012 Errege Dekretuak, irailaren 14koak, produktu fitosanitarioen erabilera jasangarrirako esparrua ezartzen duena, ezarritako baldintza guztiak betez egingo direla.

DECLARO BAJO MI RESPONSABILIDAD, ante la Diputación Foral de Álava, que los tratamientos indicados se realizarán cumpliendo todas las condiciones establecidas en la Orden Foral 125/2021 y el Real Decreto 1311/2012 del 14 de septiembre que establece el marco para conseguir un uso sostenible de productos fitosanitarios.

TOKIA ETA DATA / LUGAR Y FECHA .....

ESKATZAILEA / SOLICITANTE

Sin. / Fdo

Nekazaritza Saila Departamento de Agricultura	Mendi Zerbitzua Servicio de Montes	Plaza de la Provincia, 4-1º 01001 Vitoria-Gasteiz Tel. 945 18 18 18
--------------------------------------------------	---------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------